



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2022/07/18an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 18/07/2022 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación REgior Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2022ko uztailaren 18an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ezohiko Osoko bilkura, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Eluska Irazu Henández eta Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 18 de julio de 2022, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Eluska Irazu Henández y Ander Errarte del Pozo.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAC5YP6.Fkqs>

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/07/18



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 4/2022 ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, gizarte zerbitzuek beharrezkoa ikusten dute 2022-eranskinean jasotako berrikuspenak aldatzea, LARRIALDI PLANA izeneko programari 15.000 euro gehitzeko.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LARRIALDI PLANA izeneko programari 15.000 euro gehitzea, eta beraz, honela gelditzen da:

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza: Larrialdi plana.

HARTZAILEAK: behar beste baliabiderik ez duten herritarrak.

HELBURUA: dirulaguntza ematea premia egoeran daudenei.

LORTU GURA DENA: gizarte talde ahulenen oinarrizko beharrei erantzutea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 80.000 €

FINANTZIAZIOA: 0300.480.231.30.01 partida

2.- ESKORIATZA ETA ARETXABALETAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA EKKO PROGRAMA GARATZEKO.

Euskara eta Gazteria Batzorde informatzaileak Aretxabaletako Udalarekin lankidetza-hitzarmen bat sinatzea proposatzen du EKKO programa elkarrekin garatzeko.

Lankidetza-hitzarmen hori baliozkotzeko, beharrezkoa da 2023 eta 2024 ekitaldietarako ordainketak onartzea, konpromiso-kreditu bat sortuz honako urtealdi hauetarako:

2023. urtea 19.775,00 €

2024. urtea 12.359,37 €

Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Lankidetza hitzarmena sinatzea Aretxabaletako Udalarekin EKKO programa udal bietan gauzatzeko. Sinatu beharreko hitzarmenaren baldintzak akta honetako 1. eranskinean finkatuta daude.

Bigarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkaritza sinatu dezan.

Hirugarrena: 8.815,63 €-ko gastua onartzea, indarrean dagoen aurrekontuko 1.0600.422.337.20.01 partidaren kargura, eta aipatutako lankidetza-hitzarmena sinatzeko konpromiso-kreditua sortzeko proiektu hau onartzea.

Ez Ohiko Osoko bilkura

Pleno Extraordinaria

2022/07/18

2



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Urtealdia	Zenbatekoa
2023. urtea	19.775,00 €
2024. urtea	12.359,37 €

3.- 2021 EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2021eko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, Udalaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera, eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren aurrekontuaren kitapenak.

2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2022ko ekainaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2021eko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2022ko ekainaren 6an egindako Kontu Batzorde Berezian hasiera batean onartu ondoren, eta 2022ko ekainaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igarota hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

4.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA. ALDAKETA PROPOSAMENA: 17. ERANSKINA GEHITZEA. LANGILEAK HAUTATZEKO PROZESUETAN IZANGAIEI ZERBITZUAK EMATEGATIKO TASA.

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak 13. artikuluan ezartzen du zerbitzuak emategatik edo jarduerak egitegatik tasak ezarri ahal izango direla zuzenbide publikoko araubidean, besteak beste, pertsona jakin batzuei mesede egin, erasan edo dagozkien, edo zuzenean ala zeharka hauek eraginak diren zerbitzu eta iharduerak orokorrean.

Foru arau horren 10. artikulua xedatzen du tasak ezarri eta horietako bakoitzaren funtsezko elementuak arautzeko, foru arauaren bidea erabili beharko dela.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Eskoriatzako Udalak bere plantillako lanpostu hutsak betetzeko edo aldi baterako lan-poltsak izeneko berariazko kontratazio-zerrendak izateko hautaketa-prozesuak deitu ditu. Prozesu horietako gehienak masiboak dira, pertsona askok plantillako lanpostu bat bete nahi dutelako edo aldi baterako beharrak betetzen dituen zerrenda batean sartuta egon nahi dutelako.

Izangai kopuru handi horrek azpiegitura-gastu handia eragiten dio Eskoriatzako Udalari, gaur egun aurrekontu propioarekin finantzatzen dena. Hala ere, balizko izangai guztiei parte hartzeko aukera emateko egindako gastua ez dator bat, askotan, izangai horien benetako parte hartzearekin, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera aurkezteak ez baititu behartzen hautagai horiek parte hartzera, eta parte hartu ez izanak ez baitu inolako eraginik eskatzailearentzat. Eskoriatzako Udalak, aldiz, eskatzaile guztiei parte hartzeko aukera emateko behar den azpiegitura eduki behar du, horrek diru-kutxa publikoei dakarzkien kostuekin.

Kostu horiek arrazionalizatzeko eta hautaketa-prozesu horietan parte-hartze arduratsua bultzatzeko, komenigarritzat jotzen da prozesu horietan sortutako gastuak, zati batean behintzat, prozesu horietan interesa duten pertsonen jasanaraztea.

Aurrez esandakoagatik, Pertsonal batzorde informatzaileak proposamena egin du Udalak deitutako lanpostuetarako izangaiei zerbitzuak emateagatik tasa berri bat ezartzeko.

Hitza eman ondoren, Nestor Aranak, EH Bilduren ordezkari gisa, adierazi du bere taldea ados dagoela tasa bat kobratzearekin, baina, hala ere, proposamenari bi zehaztapen egin nahi dizkiotela: bat, 10 euro kobratzea aldi baterako lanpostuetarako deialdia bada; eta bi, langabezia daudela egiaztatzen duten izangaiei tasarik ez kobratzea.

Gainerako udal taldeek EH BILDUREN proposamenarekin ados agertuta, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Zerbitzu publikoak eta administrazio-jarduerak emateagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa onartzea, II. eranskinean agertzen den moduan. Aldaketa eranskin hau sartzea da: 17. ERANSKINA.- UDALAK DEITUTAKO LANPOSTUETARAKO IZANGAIEI ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Bigarrena.- Erabakia jendurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena: Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berriak hartu behar gabe, jendurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egin ez balitz.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:15ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

I. ERANSKINA

EKKO PROGRAMA, ARETXABALETA ETA ESKORIATZAKO UDALEK ELKARLANEAN AURRERA ERAMATEKO HITZARMENA

BILDURIK

Alde batetik, Unai Elkoro Oianguren jauna, adinez nagusia, NAN 18.594.665 Q zenbakia duena, Aretxabaletako alkate jauna eta hitzarmen hau Aretxabaletako Udalaren izenean izenpetzeko ahalmenduta dagoena.

Eta bestetik, Jose Ramón Zubizarreta Alegria jauna, adinez nagusia, NAN 16.236.589 S zenbakia duena, Eskoriatzako Udaleko alkate jauna eta hitzarmen hau Eskoriatzako Udalaren izenean izenpetzeko ahalmenduta dagoena.

Bi aldeek, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

BAT.- Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17-1.36 artikulua araberak, gazteria politiken planifikazio eta kudeaketa



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

arloko eskuduntzak gauzatzen ari dira bai laguntza deialdiak urtero eginez bai gazteei zuzendutako jarduerak garatuz.

Bi udalen artean elkarlanean programa berri bat jarri nahi da martxan. EKKO izenez ezagutzen dena, Eskola, Komunitatea, Kirola eta Osasuna, lantzeko helburua duena.

EKKO programaren barruan, 2 proiektu nagusi daude, lehena trebetasun sozialen eskola, LH5 eta LH6ko ikasle eta euren gurasoei zuzenduta dagoena eta bigarrena komunitatean prebentzioa lantzerantz zuzendutako ekintzak.

Bietatik mardulena trebetasun sozialen eskola da.

Trebetasun sozialen eskola bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, nerabeen artean antzemandako gabeziei aurrez erantzun nahi dion proiektua da. Gabeziak autoestimuan, gatazken kudeaketan, erabakiak hartzeko gaitasunean, komunikazioan eta harremanetan detektatu dira.

Horregatik, prebentzio lan bat egin nahi da aurretik. Haurren artean, autoestimua, gatazken kudeaketa, erabakiak hartzeko gaitasuna, komunikazioa eta harremanak lantzea nahi dira, horietan trebatu daitezkeen. Trebetasun sozialak lantzeko proiektu honek gurasoekin ere hainbat saio aurrera eramatea aurreikusten du, haurrekin lantzen dena, beraiekin ere lantzeko.

Bigarren proiektua, komunitateari zuzendutako ekintzak batzen dituen egitasmoa da. Komunitatean eragitea du helburu. Gonbidatuez osatutako mahai inguruak eta ekintza komunitario baten antolaketa ditu ardatz.

BI.-. Hitzarmen honen helburua, batetik, trebetasun sozialen eskola, hau da, LH5-LH6ko ikasleei eta euren gurasoei zuzendutako proiektuaren finantzazioa elkarrekin aurrera eramatea da eta bestetik, 2022ko komunitateari zuzendutako ekintzetan ere elkarlana bultzatzea. Trebetasun sozialen eskola proiektuak bi ikasturtetako iraupena izango du, hirugarren ikasturte bat luzatzeko aukerarekin, hau da, gehienez ere, 2022ko iraila/urria hasi eta 2025eko ekainera arte.

HIRU.- Udal bakoitzak programa hau bere aldetik egin beharrean, batera egitea erabaki dute, trebetasun sozialen kasuan, LH5 eta LH6ko ikasleen artean, Arizmendi, Kurtzebarri eta Luis Ezeiza eskoletan, hain zuzen ere. Komunitateari zuzendutako ekintzak bi herrietan aurrera eramatea aurreikusten dira, 2022an behinik behin.

Hori guztiori kontuan izanik, alde biek aipatutako egitasmoa gauzatzeko honako hitzarmena izenpetzen dute honako klausulen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA. HELBURUA.



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Hitzarmen honen helburua da sinatzaileen arteko lankidetzaz zehaztea ondorengo programa garatzeko:

EKKO programa, bi proiektuz osatuta dagoena:

- Trebetasun sozialen eskola
- Komunitateari zuzenduriko ekintzak

Trebetasun sozialen eskola, aurrez esan bezala, ikastetxeetan aurrera eramango den proiektua izango da.. Lizitaziora aterako den zerbitzua izango da, bi urtetarako eta gehienez ere beste urtebetez luzatzeko.

Komunitateari zuzendutako ekintzak, azarotik aurrera antolatuko dira eta urtean behin egitea aurreikusten da.

EKKO Programa hau gauzatzeko kostua, hiru urtetakoa (2022-2025) 173.500€ko da gehienez ere.

Hauetatik, trebetasun sozialen eskolarako 169.500€ eta 2022an komunitatera zuzendutako ekintzetarako 4.000€.

- Trebetasun sozialak lantzeko eskola zerbitzuak ikasturteko 56.500€ko kostua izatea aurreikusten da.

BIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Udal biek lankidetzaz hitzarmen hau onartzen eta formalizatzen dute Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17-1.36 artikulua aitortzen dien eskuduntzen babesean.

Lankidetzaz hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan aurreikusitakoaren babesean antolatzen da.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik kanpo gelditzen da, bere 6.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

HIRUGARRENA. ALDE BAKOITZAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISKO EKONOMIKOAK.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hitzarmen honetan sartzen diren finantza konpromisoak jasangarriak dira finantza aldetik, eta alde biek aitortzen dute hitzarmen honen indarraldirako beraien gain hartutako konpromisoari aurre egiteko gaitasuna dutela.

Finantza konpromiso horiek honako hauek dira:

3 urtetako zerbitzua eta 2022ko komunitateari zuzendutako ekintzei dagokiona:

Hiru urtetako kostua gehienez ere : 173.500€koa da.



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Horietatik, eta adin horretako biztanle proportzioa aintzat hartuta horrela banatzen dira kostuak:

3 urtetako gastua proportzionalki:

- Aretxabaletako Udalak: 112.775€ (%65ari dagokiona)
- Eskoriatzako Udalak: 60.725€ (%35ari dagokiona)

2022 urteari dagokion gastua: 25.187,5€

Trebetasun sozialen eskola: 21.187,5€

Komunitateari zuzendutako ekintzak: 4.000€

- Aretxabaletako Udalak :16.371,87€ (%65ari dagokiona)
- Eskoriatzako udalak: 8.815,63€ (%35ari dagokiona)

2023 urtetako kostua proportzionalki: 56.500€

- Aretxabaletako Udalak: 36.725€ (%65ari dagokiona)
- Eskoriatzako Udalak: 19.775€ (%35ari dagokiona)

2024 urterako kostua kontratuaren luzapena kontuan hartu gabe: 35.312,5€

- Aretxabaletako Udalak: 22.953,12 €
- Eskoriatzako Udalak: 12.359,37€

Komunitateari zuzendutako ekintzak, 4.000€ko gastua aurreikusten direnak 2022ko azaroa eta abendura bitartean egingo dira, hitzaldiak eta kirol ekintzak izango dira nagusiki antolatuko direnak. Hurrengo urteetan herri bakoitzak bere kabuz egingo ditu ekintza hauek.

Sinatzaileek finantza-ekarpenak egiteko konpromisoa hartuta, ekarpen horiek ezingo dira handiagoak izan hitzarmena betearaztearen ondorioz sortutako gastuak baino.

Aretxabaletako Udalaren betebeharrak:

1. Aretxabaletako Udalak konpromisoa hartzen du, 2022an 16.371,87€ko ekarpen ekonomikoa egiteko. Hurrengo urteetan, trebetasun sozialen eskola zerbitzuaren kostuaren %65a.2023an 36.725€ eta 2024an 22.953,12€.

2.- Aretxabaletako Udalak, udal bien izenean eta kontura, konpromisoa hartzen du zerbitzu kontratu administratiboaren lizitazioa, esleipena eta formalizazioa egiteko, trebetasun sozialen eskola proiektuari dagokionez.

3. Aretxabaletako Udalak Eskoriatzako Udalari jakinaraziko dizkio pausu bakoitzaren egoeraren berri, aipatutako kontratuaren lizitazio aurretik, lizitazioan zehar eta lizitazio ondoren egindako jarduerak.

Ez Ohiko Osoko bilkura

Pleno Extraordinaria

2022/07/18



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

4. Aretxabaletako Udalak honako hau izendatzen du kontratuaren arduradun: gazteria teknikaria
5. Aretxabaletako Udalak, udal bien izenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak atera ditzaketen diru laguntzetako deialdietara proiektua aurkezteko erantzukizuna hartzen du eta horren berri jakinarazi Eskoriatzako Udalari.
- 6.- Aretxabaletako Udalari dagokio jasotako diru laguntzaren zuriketa egitea eta beharrezkoa den dokumentazio guztia Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztea.

Eskoriatzako Udalaren betebeharrak:

1.-Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du 2022ko udal aurrekontuetatik 8.815,63€-ko ekarpen ekonomikoa egiteko. Diru kopuru honetan, trebetasun sozialen eskola proiektua eta 2022ko komunitateari zuzendutako ekintzak sartzen dira. 2023an 19.775€ eta 2024an 12.359,37€.

Ordainketa gehienez ere hamar egun baliouduneko epean egingo da Aretxabaletako Udalak ordainketa egiteko eskatzen dion egunetik kontatzen hasita. Trebetasun sozialen urteko zerbitzua zortzi fakturatan banatuko da.

2.- Eskoriatzako Udalak kontratua betetzeko garrantzitsuak diren baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak egiten lagunduko du.

3.- Eskoriatzako Udalak honako hau izendatzen du kontratuaren arduradun: gazteria teknikaria

Finantza konpromisoak honela gelditzen dira zehaztuta:

Lizitazioaren ondorioz adjudikazio prezioa txikiagoa bada, udal bakoitzaren ekarpena proportzionalki gutxituko da. Honen ondorioz, Eskoriatzako Udalak egindako ekarpenetik dagokion kopurua itzuliko zaio.

LAUGARRENA. JASO DAITEZKEEN DIRU LAGUNTZAK BADIRA.

Aurkeztutako diru laguntzen ebazpenak iritertzen direnean, emandako diru laguntzaren banaketa ondorengo portzentajearen arabera izango da herri bakoitzarentzat:

Aretxabaletako Udala : %65a

Eskoriatzako Udala: %35a

BOSTGARRENA. SOLASKIDEAK.

Udal bakoitzak honako teknikaria izendatzen du hitzarmen honekin zerikusia duten gorabeherei buruzko informazioa trukatzeko:

- Aretxabaletako Udala: Gazteria teknikaria
- Eskoriatzako Udala: Gazteria teknikaria

Ez Ohiko Osoko bilkura

Pleno Extraordinaria

2022/07/18



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

SEIGARRENA. APLIKATU DAITEZKEEN ONDORIOAK ALDERDIETAKO BAKOITZAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHAR ETA KONPROMISOAK BETETZEN EZ BADITU.

Alderdi sinatzaileek euren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeak, hitzarmen honetan jasotzen direnak, lankidetzaren hitzarmen hau suntsitzea ekarriko du, alde aurretik beste aldeari entzunaldia bermatuko dion aurkakotasun-prozedura egin ondoren.

ZAZPIGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Lankidetzaren hitzarmen hau indarrean izango da bertan aurreikusitako jarduerak amaitu arte, eta edozein modutan ere, ez du indarririk izango 2025eko uztailetik aurrera.

Ezingo da isilbidezko luzapenik egin.

ZORTZIGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmena behar bezala betetzen dela zaintzeko, Jarraipen batzordea eratuko da. Batzorde hau herri bietako alkateekin eta Aretxabaletako gazteria teknikariarekin eratuko da. Azken hau batzordeko idazkaria izango da.

Batzorde horren zereginak izango dira hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea eta hitzarmena hobetzeko proposamenak egitea.

Batzordea alkateetako batek eskatzen duen bakoitzean bilduko da eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENAREN ALDAKETAK

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke bi aldeek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa erantsiko zaizkio hitzarmen honi.

JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazioarekiko auzian jurisdikzio auzitegiei dagokie hitzarmen hau aplikatu eta garatzearen ondorio diren auziez arduratzeko eskumena.

II. ERANSKINA

17. ERANSKINA - UDALAK DEITUTAKO LANPOSTUETARA IZANGAIEI ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA

Ez Ohiko Osoko Bilkura

Pleno Extraordinaria

2022/07/18

10



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1. artikulua.- Egitate zergagarria.

Eskoriatzako Udaleko langile izateko hautapen probetan parte hartu nahi dutenei beharrezko zerbitzuak ematea da tasaren zerga egitatea.

Barne sustapeneko txandari dagozkion hautapen probak ez dira sartzen zerga egitatearen barruan.

2. artikulua.- Subjektu pasiboa.

Eskoriatzako Udalak deitutako hautapen prozesuetan parte hartzea eskatzen duten pertsona fisikoak izango dira tasaren subjektu pasiboak.

3. artikulua. Sortzapena.

Hautapen probetan inskribatzeko eskaera aurkezten den unean sortuko da tasa. Eskabideari tasa ordaindu izanaren frogagiria erantsi beharko zaio.

Eskaera ez da tramitatuko tasa ordaindu arte.

4. artikulua. Salbuespenak.

Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira ondorengo egoeraren bat egiaztatzen duten eskatzaileak:

- % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izatea.
- Langabezian egotea.

5. artikulua. Kuota.

Izangai bakoitzak ordaindu beharreko kuota ondorengo da:

- 20 euro lanpostu finkoetarako deialdietan.
- 10 euro aldi baterako lanpostuetarako deialdietan.

Tasaren ordainketa nominala izango da, indibidualizatua hautapen prozesu bakoitzeko, eta prozesu batean plaza bat baino gehiago badaude, ordainketa bat egin beharko da izena ematen den bakoitzerako, baldin eta hasierako ariketa diferentziatuta badago.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1. MODIFICACION 4/2022 DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES.

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2019, adoptó el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023.

Aprobado, desde el área de servicios sociales se ve la necesidad de modificar las revisiones contempladas en su Anexo-2022, con el fin de incrementar en 15.000 euros el Programa PLAN DE EMERGENCIAS

Por lo anteriormente mencionado, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Incrementar en 15.000 euro el PROGRAMA PLAN DE EMERGENCIAS, quedando el mismo fijado en los siguientes términos:

E) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: subvención: plan de emergencias.

DESTINATARIOS: Vecinos/as del municipio que carezcan de recursos suficientes.

OBJETO: Concesión de una ayuda económica a quienes se encuentran en estado de necesidad.

EFFECTO PRETENDIDO: Atender necesidades primarias de capas sociales desfavorecidas.

MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Concurrencia competitiva

COSTES PREVISIBLES : 80.000 €

FINANCIACIÓN: Partida 0300.480.231.30.01

2.- CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA Y ARETXABAETA PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA EKKO.

Desde la Comisión Informativa de Euskera y Juventud se propone formalizar un convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Aretxabalea para el desarrollo conjunto del Programa EKKO.

Para la validación del citado convenio de colaboración es necesario aprobar el reconocimiento de los abonos para los próximos ejercicios 2023 y 20024 mediante la creación de un crédito de compromiso, con las siguientes anualidades:

Año 2023	19.775,00 €
Año 2024	12.359,37 €

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión informativa de Euskera, Juventud y Educación y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno acuerda:

Primero: Formalizar con el ayuntamiento de Aretxabalea un convenio de colaboración para la materialización del Programa EKKO en ambos municipios. La cláusulas del convenio a formalizar quedan fijadas en el Anexo 1 del presente acta.

Ez Ohiko Osoko bilkura

Pleno Extraordinaria

2022/07/18

12



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Segundo: Facultar al Sr. Alcalde para que, en nombre y representación del Ayuntamiento, formalice dicho convenio.

Tercero: Aprobar el gasto de 8.815,63€ko euros con cago a la partida 1.0600.422.337.20.01 del vigente presupeusto y aprobar el presente proyecto de creación de crédito de compromiso para la firma del Citado Convenio de Colaboración,

Anualidades	Importe
Año 2023	19.775,00 €
Año 2024	12.359,37 €

3.- APROBACION DE LA CUENTA GENERAL EJERCICIO 2021.

En cumplimiento del artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Comisión Especial de Cuentas procedió al examen de las Cuentas y Estados contables del ejercicio 2021, integrada por las cuentas anuales y estados contables de la propia Corporación, junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como las liquidaciones del Presupuesto del Ayuntamiento.

En sesión de fecha 6 de junio de 2022 la Comisión Especial de Cuentas dictaminó favorablemente la aprobación de las citadas cuentas.

Mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 9 de junio de 2022, fueron sometidas a información pública por término de quince días, sin que durante dicho plazo se interpusiese alegación a reclamación alguna.

Con base a cuanto antecede, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, el Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

“Aprobar definitivamente el expediente relativo a las cuentas generales del Ayuntamiento correspondientes al ejercicio 2021, tras su aprobación inicial en la Comisión Especial de Cuentas celebrada en fecha 6 de junio de 2022 y tras haber transcurrido el plazo establecido de información pública desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 9 de junio de 2022, sin que se haya producido reclamación ni observación alguna contra el expediente inicialmente aprobado.”

4.- ORDENANZA REGULADORA DE LAS TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS. PROPUESTA DE MODIFICACIÓN: AÑADIR ANEXO 17. TASA POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS A LOS ASPIRANTES EN LOS PROCESOS DE SELECCIÓN DE PERSONAL.

La Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de Tasas y Precios Públicos, establece en su artículo 13 que se podrán establecer tasas por la prestación de servicios o realización de actividades en régimen de derecho público consistentes, entre otros, en servicios o actividades en general que

Ez Ohiko Osoko bilkura

Pleno Extraordinaria

2022/07/18

13



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

se refieran, afecten o beneficien a personas determinadas o que hayan sido motivados por éstas, directa o indirectamente.

La citada norma foral dispone en su artículo 10 que el establecimiento de las tasas, así como la regulación de los elementos esenciales de cada una de ellas, deberá realizarse con arreglo a norma foral.

El Ayuntamiento de Eskoriatza convoca procesos selectivos para cubrir plazas vacantes de su plantilla o para disponer de listas de contratación específicas, denominadas bolsas de trabajo temporal. La mayoría de estos procesos son masivos porque un gran número de personas aspiran a ocupar un puesto de plantilla o a estar incluidas en un listado desde el que se cubren necesidades temporales.

Esta gran afluencia de personas aspirantes genera un gasto de infraestructura considerable al Ayuntamiento de Eskoriatza que en la actualidad es financiado, en su totalidad, con el presupuesto propio. Sin embargo, el gasto ocasionado para dar acceso a todos los posibles candidatos no se corresponde en muchos casos con la afluencia real de los mismos, dado que la presentación de la solicitud de participación al proceso selectivo no obliga a su participación, y la posterior inasistencia no tiene ninguna repercusión para el o la solicitante. Por el contrario, el Ayuntamiento de Eskoriatza tiene la obligación de disponer de la necesaria infraestructura para dar acceso a todas las personas solicitantes, con los costes que ello implica para las arcas públicas.

A efectos de racionalizar dichos costes e impulsar una participación responsable en los citados procesos selectivos, se estima conveniente repercutir los gastos generados en los mencionados procesos, cuando menos en parte, a las personas interesadas en los mismos.

Por cuanto antecede, desde la Comisión Informativa de Personal se eleva propuesta de fijar una tasa nueva por la prestación de servicios a los aspirantes a plazas convocada por el Ayuntamiento.

Concedida la palabra, Nestor Arana, en representación de EH BILDU, manifiesta que su grupo está de acuerdo con el hecho de que se cobre una tasa pero que no obstante quisieran hacer dos puntualizaciones a la propuesta y que son: Una, cobrar 10 euros en el caso de que se trate de convocatoria de puestos temporales; y Dos, no cobrar cantidad alguna a los aspirantes que acrediten estar en situación de desempleo.

Ez Ohiko Osoko bilkura

Pleno Extraordinaria

2022/07/18



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Tras mostrar el resto de los grupos municipales su conformidad con el planteamiento de EHBILDU, el Pleno por unanimidad ACUERDA:

Primero: Aprobar en los términos que constan en el Anexo II la modificación de la Ordenanza reguladora de las Tasa por prestación de servicios públicos y actividades administrativas, consistente en incluir el ANEXO Nº 17 -TASA POR PRESTACION DE SERVICIOS A ASPIRANTES A PLAZAS CONVOCADAS POR EL AYUNTAMIENTO

Segundo: Someter a información pública por el plazo de 30 días el referido acuerdo a efectos de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse.

Tercero: El acuerdo de modificación devengará definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:15 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.

ANEXO I

EKKO PROGRAMA, ARETXABALETA ETA ESKORIATZAKO UDALEK ELKARLANEAN AURRERA ERAMATEKO HITZARMENA

BILDURIK

Alde batetik, Unai Elkoro Oianguren jauna, adinez nagusia, NAN 18.594.665 Q zenbakia duena, Aretxabaletako alkate jauna eta hitzarmen hau Aretxabaletako Udalaren izenean izenpetzeko ahalmenduta dagoena.

Eta bestetik, Jose Ramón Zubizarreta Alegria jauna, adinez nagusia, NAN 16.236.589 S zenbakia duena, Eskoriatzako Udaleko alkate jauna eta hitzarmen hau Eskoriatzako Udalaren izenean izenpetzeko ahalmenduta dagoena.



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Bi aldeek, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

BAT.- Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17-1.36 artikulua araberak, gazteria politiken planifikazio eta kudeaketa arloko eskuduntzak gauzatzen ari dira bai laguntza deialdiak urtero eginez bai gazteei zuzendutako jarduerak garatuz.

Bi udalen artean elkarlanean programa berri bat jarri nahi da martxan. EKKO izenez ezagutzen dena, Eskola, Komunitatea, Kirola eta Osasuna, lantzeko helburua duena.

EKKO programaren barruan, 2 proiektu nagusi daude, lehena trebetasun sozialen eskola, LH5 eta LH6ko ikasle eta euren gurasoei zuzenduta dagoena eta bigarrena komunitatean prebentzioa lantzeko zuzendutako ekintzak.

Bietatik mardulena trebetasun sozialen eskola da.

Trebetasun sozialen eskola bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, nerabeen artean antzemandako gabeziei aurrez erantzun nahi dion proiektua da. Gabeziak autoestimuan, gatazken kudeaketan, erabakiak hartzeko gaitasunean, komunikazioan eta harremanetan detektatu dira.

Horregatik, prebentzio lan bat egin nahi da aurretik. Haurren artean, autoestimua, gatazken kudeaketa, erabakiak hartzeko gaitasuna, komunikazioa eta harremanak lantzea nahi dira, horietan trebatu daitezkeen. Trebetasun sozialak lantzeko proiektu honek gurasoei ere hainbat saio aurrera eramatea aurreikusten du, haurrekin lantzen dena, beraiekin ere lantzeko.

Bigarren proiektua, komunitateari zuzendutako ekintzak batzen dituen egitasmoa da. Komunitatean eragitea du helburu. Gonbidatuek osatutako mahai inguruak eta ekintza komunitario baten antolaketa ditu ardatz.

BI.- Hitzarmen honen helburua, batetik, trebetasun sozialen eskola, hau da, LH5-LH6ko ikasleei eta euren gurasoei zuzendutako proiektuaren finantzazioa elkarrekin aurrera eramatea da eta bestetik, 2022ko komunitateari zuzendutako ekintzetan ere elkarlana bultzatzea. Trebetasun sozialen eskola proiektuak bi ikasturtetako iraupena izango du, hirugarren ikasturte bat luzatzeko aukerarekin, hau da, gehienez ere, 2022ko iraila/urria hasi eta 2025eko ekainera arte.

HIRU.- Udal bakoitzak programa hau bere aldetik egin beharrean, batera egitea erabaki dute, trebetasun sozialen kasuan, LH5 eta LH6ko ikasleen artean, Arizmendi, Kurtzebarri eta Luis Ezeiza eskoletan, hain zuzen ere. Komunitateari zuzendutako ekintzak bi herrietan aurrera eramatea aurreikusten dira, 2022an behinik behin.

Ez Ohiko Osoko Bilkura

Pleno Extraordinaria

2022/07/18

16



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Hori guztiori kontuan izanik, alde biek aipatutako egitasmoa gauzatzeko honako hitzarmena izenpetzen dute honako klausulen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA. HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da sinatzaileen arteko lankidetzaz zehaztea ondorengo programa garatzeko:

EKKO programa, bi proiektuz osatuta dagoena:

- Trebetasun sozialen eskola
- Komunitateari zuzenduriko ekintzak

Trebetasun sozialen eskola, aurrez esan bezala, ikastetxeetan aurrera eramango den proiektua izango da. Lizitaziora aterako den zerbitzua izango da, bi urtetarako eta gehienez ere beste urtebetez luzatzeko.

Komunitateari zuzendutako ekintzak, azarotik aurrera antolatuko dira eta urtean behin egitea aurreikusten da.

EKKO Programa hau gauzatzeko kostua, hiru urtetakoa (2022-2025) 173.500€ko da gehienez ere.

Hauetatik, trebetasun sozialen eskolarako 169.500€ eta 2022an komunitatera zuzendutako ekintzetarako 4.000€.

- Trebetasun sozialak lantzeko eskola zerbitzuak ikasturteko 56.500€ko kostua izatea aurreikusten da.

BIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Udal biek lankidetzaz hitzarmen hau onartzen eta formalizatzen dute Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17-1.36 artikulua aitortzen dien eskuduntzen babesean.

Lankidetzaz hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan aurreikusitakoaren babesean antolatzen da.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik kanpo gelditzen da, bere 6.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

HIRUGARRENA. ALDE BAKOITZAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISKO EKONOMIKOAK.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hitzarmen honetan sartzen diren finantza konpromisoak



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

jasangarriak dira finantza aldetik, eta alde biek aitortzen dute hitzarmen honen indarraldirako beraien gain hartutako konpromisoei aurre egiteko gaitasuna dutela.

Finantza konpromiso horiek honako hauek dira:

3 urtetako zerbitzua eta 2022ko komunitateari zuzendutako ekintzei dagokiona:

Hiru urtetako kostua gehienez ere : 173.500€koa da.

Horietatik, eta adin horretako biztanle proportzioa aintzat hartuta horrela banatzen dira kostuak:

3 urtetako gastua proportzionalki:

- Aretxabaletako Udalak: 112.775€ (%65ari dagokiona)
- Eskoriatzako Udalak: 60.725€ (%35ari dagokiona)

2022 urteari dagokion gastua: 25.187,5€

Trebetasun sozialen eskola: 21.187,5€

Komunitateari zuzendutako ekintzak: 4.000€

- Aretxabaletako Udalak :16.371,87€ (%65ari dagokiona)
- Eskoriatzako udalak: 8.815,63€ (%35ari dagokiona)

2023 urtetako kostua proportzionalki: 56.500€

- Aretxabaletako Udalak: 36.725€ (%65ari dagokiona)
- Eskoriatzako Udalak: 19.775€ (%35ari dagokiona)

2024 urterako kostua kontratuaren luzapena kontuan hartu gabe: 35.312,5€

- Aretxabaletako Udalak: 22.953,12 €
- Eskoriatzako Udalak: 12.359,37€

Komunitateari zuzendutako ekintzak, 4.000€ko gastua aurreikusten direnak 2022ko azaroa eta abendura bitartean egingo dira, hitzaldiak eta kirol ekintzak izango dira nagusiki antolatuko direnak. Hurrengo urteetan herri bakoitzak bere kabuz egingo ditu ekintza hauek.

Sinatzaileek finantza-ekarpenak egiteko konpromisoa hartuta, ekarpen horiek ezingo dira handiagoak izan hitzarmena betearaztearen ondorioz sortutako gastuak baino.

Aretxabaletako Udalaren betebeharrak:

1. Aretxabaletako Udalak konpromisoa hartzen du, 2022an 16.371,87€ko ekarpen ekonomikoa egiteko. Hurrengo urteetan, trebetasun sozialen eskola zerbitzuaren kostuaren %65a.2023an 36.725€ eta 2024an 22.953,12€.

Ez Ohiko Osoko bilkura

Pleno Extraordinaria

2022/07/18

18



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

2.- Aretxabaletako Udalak, udal bien izenean eta kontura, konpromisoa hartzen du zerbitzu kontratu administratiboaren lizitazioa, esleipena eta formalizazioa egiteko, trebetasun sozialen eskola proiektuari dagokionez.

3. Aretxabaletako Udalak Eskoriatzako Udalari jakinaraziko dizkio pausu bakoitzaren egoeraren berri, aipatutako kontratuaren lizitazio aurretik, lizitazioan zehar eta lizitazio ondoren egindako jarduerak.

4. Aretxabaletako Udalak honako hau izendatzen du kontratuaren arduradun: gazteria teknikaria

5. Aretxabaletako Udalak, udal bien izenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak atera ditzaketen diru laguntzetako deialdietara proiektua aurkezteko erantzukizuna hartzen du eta horren berri jakinarazi Eskoriatzako Udalari.

6.- Aretxabaletako Udalari dagokio jasotako diru laguntzaren zuriketa egitea eta beharrezkoa den dokumentazio guztia Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztea.

Eskoriatzako Udalaren betebeharrak:

1.-Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du 2022ko udal aurrekontuetatik 8.815,63€-ko ekarpen ekonomikoa egiteko. Diru kopuru honetan, trebetasun sozialen eskola proiektua eta 2022ko komunitateari zuzendutako ekintzak sartzen dira. 2023an 19.775€ eta 2024an 12.359,37€.

Ordainketa gehienez ere hamar egun balioduneko epean egingo da Aretxabaletako Udalak ordainketa egiteko eskatzen dion egunetik kontatzen hasita. Trebetasun sozialen urteko zerbitzua zortzi fakturatan banatuko da.

2.- Eskoriatzako Udalak kontratua betetzeko garrantzitsuak diren baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak egiten lagunduko du.

3.- Eskoriatzako Udalak honako hau izendatzen du kontratuaren arduradun: gazteria teknikaria

Finantza konpromisoak honela gelditzen dira zehaztuta:

Lizitazioaren ondorioz adjudikazio prezioa txikiagoa bada, udal bakoitzaren ekarpena proportzionalki gutxituko da. Honen ondorioz, Eskoriatzako Udalak egindako ekarpenetik dagokion kopurua itzuliko zaio.

LAUGARRENA. JASO DAITEZKEEN DIRU LAGUNTZAK BADIRA.

Aurkeztutako diru laguntzen ebazpenak irteten direnean, emandako diru laguntzaren banaketa ondorengo portzentajearen arabera izango da herri bakoitzarentzat:

Aretxabaletako Udala : %65a



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Eskoriatzako Udala: %35a

BOSTGARRENA. SOLASKIDEAK.

Udal bakoitzak honako teknikaria izendatzen du hitzarmen honekin zerikusia duten gorabeheren buruzko informazioa trukatzeko:

- Aretxabaletako Udala: Gazteria teknikaria
- Eskoriatzako Udala: Gazteria teknikaria

SEIGARRENA. APLIKATU DAITEZKEEN ONDORIOAK ALDERDIETAKO BAKOITZAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHAR ETA KONPROMISOAK BETETZEN EZ BADITU.

Alderdi sinatzaileek euren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeak, hitzarmen honetan jasotzen direnak, lankidetzaren hitzarmen hau suntsitzea ekarriko du, alde aurretik beste aldeari entzunaldia bermatuko dion aurkakotasun-prozedura egin ondoren.

ZAZPIGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Lankidetzaren hitzarmen hau indarrean izango da bertan aurreikusitako jarduerak amaitu arte, eta edozein modutan ere, ez du indarriz izango 2025eko uztailetik aurrera.

Ezingo da isilbidezko luzapenik egin.

ZORTZIGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmena behar bezala betetzen dela zaintzeko, Jarraipen batzordea eratuko da. Batzorde hau herri bietako alkateekin eta Aretxabaletako gazteria teknikariarekin eratuko da. Azken hau batzordeko idazkaria izango da.

Batzorde horren zereginak izango dira hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea eta hitzarmena hobetzeko proposamenak egitea.

Batzordea alkateetako batek eskatzen duen bakoitzean bilduko da eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENAREN ALDAKETAK

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke bi aldeek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa erantsiko zaizkio hitzarmen honi.

JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazioarekiko auzian jurisdikzio auzitegiei dagokie hitzarmen hau aplikatu eta garatzearen ondorio diren auziez arduratzeko eskumena.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

ANEXO II

ANEXO 17 - TASA POR PRESTACION DE SERVICIOS A ASPIRANTES A PLAZAS CONVOCADAS POR EL AYUNTAMIENTO

Artículo 1. Hecho imponible.

Constituye el hecho imponible de la tasa la prestación a las personas interesadas de los servicios necesarios para la realización de pruebas selectivas de acceso a la condición de personal del Ayuntamiento de Eskoriatza.

No están incluidas dentro del hecho imponible las pruebas selectivas correspondientes al turno de promoción interna.

Artículo 2. Sujeto pasivo.

Son sujetos pasivos de la tasa las personas físicas que soliciten la inscripción como aspirantes en los procesos de selección de personal convocados por el Ayuntamiento de Eskoriatza

Artículo 3. Devengo.

La tasa se devengará en el momento de presentar la solicitud de inscripción en las pruebas de acceso. El justificante del abono de la tasa se deberá adjuntar a la instancia de solicitud.

La solicitud no se tramitará hasta tanto se haya efectuado el pago.

Artículo 4. Exenciones.

Quedarán exentas del pago de la tasa las personas solicitantes que acrediten cualquiera de las siguientes circunstancias:

- condición de discapacidad en grado igual o superior al 33 por 100.
- Estar en situación de desempleo

Artículo 5. Cuota.

La cuota a satisfacer por cada persona aspirante será:



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

- 20 euros en convocatorias para puestos fijos
- 10 euros en convocatorias para puestos temporales.

La tasa se abonará de forma nominal e individualizada para cada proceso selectivo y, en aquel en que haya varias plazas, por cada plaza a la que se opte, siempre que cada una de ellas tenga un primer ejercicio diferenciado.